

# Fonetika-Fonologia

Jose Ramon Zubiaur

## I. SARRERA

Giza-mintzairari datxezkion ahozketasunean eta ozentasunean jarri izan du bere arreta →Linguistika berriak.

Fonetika, larri-larrian, mintzairaren →soinu-gaia arakutzen duen Linguistikaren adarra da, →adierazpenaren plano aalegia. Mintzamenari dagokion ondorio fonikoa du ikergai, beraz, →*hizketa* deritzogun alderdia.

Mintzaira, ekintza fonikoa den aldetik, lerroki mamitzen da denboran barrena; baina ez da, izan, →soinu berezitu, eta aisa →bereizlez, osatutako ilara bat.

→Hizketa continuum pluridimentsionala da; eta pausaldiek eta isiluneek baizik ez dute eteten. Soinu konkretuak, →bokal edo →kontsonante, continuum horretan ondoenik, eta beren →ezaugarri bereizleez, gailentzen diren elementu fonikoak dira; baina, multzo foniko horretan, bereizle baldin badira ere, ez dira bereziturik agertzen. Azterketa linguistikoa, dena dela, abstrakzio bidez, gertaera foniko horren segmentazioa lortzen du, eta bi mota nagusi eraten:

a) gertaera foniko →puntual edo segmentalak, edo-ta osagai laburrak (soinu konkretuak; eta bokal eta kontsonanteak, oro har) = Fonetika (a)

b) gertaera foniko suprasegmental edo prosodikoak edo-ta osagai luzeak = →Prosodia (b)

Bi gertaera foniko mota horiek mintzairaren ñabardura mugagabeen iker daitezke; alegia, ikuspegi orokorraren aldetik; edo-ta mintzaira konkretu honen edo haren ikuspegitik. Horretara, Fonetikaren zatiketa berri bat izango dugu:

Mintzairaren Fonetika orokorra (A).

Mintzaira konkretuen Fonetika berezia (B) = Euskal Fonetika adibidez.

Gertaera fonikoak, azkenekorik, ikuspegi deskribatzailearen arabera iker daitezke, beren ezaugarri bakoiztaileetan, →adierazpenaren →substantzia gisa; edo, hertsiki, fonetikoki.


Baina mintzairari buruzko beren baliagarritasunaren aldetik ere iker daitezke, agertzen diren mintzairan duten  $\rightarrow$ funtzioarenetik, edo-ta delako mintzaira horretxan adierazpenaren forma diren aldetik.

Hori dela-ta, mintzaira bakoitzaren *Fonetikak* bi azter-maila ditu:

— deskribatzailea, fonetikoa ( $\alpha$ )

— funtzionala, fonologikoa ( $\beta$ )

Hitz batez, eta orain arte esandakoa eskema batetara bildu nahirik, hau genuke:



Galde-zeinu batez markatu dugu alderdi prosodikoen ikerketa fonologikoa; alde batetik, ikerketa-mota berriarela delako, eta bestetik hizkuntzalari guztiek ontzat ematen ez dutelako (ikus 4.4. Prosodia-Fonologia).

Tradizioaren arabera, Fonetika Orokorra fonologikoa eta akronikoa ez den ikuspegi batetik hartu ohi da; gizakumeak, mintzatzerakoan, eskuarki erabili ohi dituen aukera fonikoen ikerketa gisa, alegia.

Fonetika Berezia (B), berriz, sinkronikoa izan daiteke, baita diakronikoa ere. Eta hori alor fonetikoan eta alor fonologikoan batera.

## II. FONETIKA OROKORRA

Mintzairaren alderdi fonikoen deskribapen orokorra bi ikuspegitatik egin ohi da:

a) Artikulaziozkoa edo fisiologikoa; hau da, nola artikulatzen diren, eta zein giza-atalez artikulatzen.

b) Akustikoa, alderdi fisikoa duten aldetik, ezaugarri objektiboz osatutako soinu-uhinak direnetik, eta aparatu bidez aztergarri. Ikuspegi honixe datzekio Entzutezko Fonetika.

### A) FIOLOGIAREN IKUSPEGIA

Mintzairaren soinuek —eta beronen prosodi alderdiek— biriketarikako airea dute oinarrigaitzat; eta, beren gehiengoan,  $\rightarrow$ ejektiboak dira.

Mintzaira bakar batzuk, bestalde, soinu injektiboak ere badituzte; oro har, klik-ak edo kontsonanteak.

Arnasbeherako aire hori —bere erritmo eta arnasbeherako presioarekin batera— soinu, →ahots edo →tonu laringal bihurtzen da; zeren-eta irtetea, eta laringearen →ahots-kordak hertsirik topatzean, periodikoki edo aperiodikoki dardarazten bait ditu. Berorien hersketa —→teinkadura— nolakoa den, eta arnasbeherako presioa handiagoa ala txikiagoa den, eta horretantxe finkatuko da ahotsaren ozentasuna ala gortasuna. Ahots horrek gero, laringetik hasi eta giza-soinetik kanpora irten arteko bide-rakoan, aho-sudurren iragazkia edo gloti-gaineko barrunbea kurrituko ditu. Kurribide horretan oratuko da →hitza, tinbre berezitan artikulaturik.

→Tonu laringal edo ahotsak sudur-barrunbea zabalik aurkitzen badu —→aho-gingila «jaitsita» edo «lepotik berezita» dagoelako— hots sudur-kari bihurtuko da, edo-ta aho-sudurkari. Soinu →sudurkariok →ahokariak ere izan ohi dira —baita eskuarki soinu →ozenak ere— eta halako tinbre berezi bat erantsi ohi diete; alde batetik, sudurtzuloetatik igarotzean hartua, eta bestetik aho-barrunbekoa.

Ahotsak, nahitaez aho-barrunbetik igarotzean, mihia topatzen du →artikulazioaren organo higikor eta funtsezkoa. Eta hau gerta dakiok:

- bidea libro eta trabarik gabe topatzea; soinu bokalikoak
- bidea hein batez libro bakarrik topatzea, erabat itxita edo mehartuta: soinu kontsonantikoak.

Trabaketa-maila horrek (→irekidura edo artikulazio-moduari dago-kionak), honela sailkatzen ditu bokalak:

- →irekiak
- ertainak
- →itxiak

Eta kontsonanteak honela:

- →herskariak
- →afrikatuak (edo erdi-leherkariak)
- →igurzkariak (edo konstrikiotzak edo arnasbehekariak)


Itxitura ez osoarekin igarapen irekia elkartzen duten soinuak ere badaude. →Aldekari eta →dardarkari esan ohi direnak —tradizioaren arabera likido izenez elkarturik— eta, hein batez, →sudurkariak.

Likidoak eta sudurkariak, bestalde, sonante izenezko multzoan sartu ohi dira; eta, →erdibokal eta →erdikontsonanteekin batera, bokal eta kontsonanteen arteko barrutia osatzen dute. Hots, berriro ere, horietzek egiten dute, etendurarik gabeko ilaran, mintzairaren soinuen multzoa.

Bokalak beren irekidura-mailaz gain, artikulazioari buruz mihiak har ditzakeen jarrera desberdinen aldetik ere berezten dira —→aurreko, →erdiko eta →atzeko bokalak— eta ezpainen har dezaketen itxuraren aldetik —zabalduek nahiz borobilduek— hau dela bide, alde batetik, bokal zabaldu edo ez-borobilduek sortzen direla, eta bestetik ezpainez-tatu edo borobilduek.

Bestetik ere, bokal sudurkariak, eta luzeak, izan daitezke; edo-ta →ahokariak eta →laburrak. Faktore horiek guztiak elkartuz, hizkuntzek dituzten bokal ugariak sortzen dira; fonologi mailan neurtuz gero, 5etik 20ra oro har.

Kontsonanteak ere, era berean, eratzen dituzten giza-organoen arabera aldatzen dira, baita aire-bidean artikulatzen diren puntuaren arabera ere. Horretara, kontsonante →ezpainkari, →horzkari, →apikari, →sabaikari, →belare eta →mingainkariak ditugu, kontsonante-ordenak alegia, baita azpi-ordenak ere; eta hori guztia, noski, artikulazio-moduaren arabera finkatutako kontsonante-sailen barruan. Hitz batez, mintzaira-soinurik gehienak aho-barrunbean artikulatzen dira (ik. 2 irudia).



2. Ird. Gloti-gaineko barrunbeetako zatirik nagusienak beren latinetiko izenekin (Malmberg, 1970).

## B) ALFABETO FONETIKOAK

Alderdi foniko hauek osatzen duten multzo zabalaren irudi grafikoa ematea nekeza zen tradiziozko ortografi →alfabetoez (askotan latinezko alfabetoaren ondorio). Horregatik, →Alfabeto Fonetiko aberatsagoak eta nabarragoak prestatu dituzte fonetikariek; latinari zetxekion ortografi sokatik bereziago. Horretarako, alfabeto desberdinen →grafemak elkartu zituzten, eta →ikur →diakritikoz osatu.

Alfabeto Fonetiko horien artean, hona hemen ezagunenak:

A.P.I. (Alphabet Phonétique International).

A.I.E. (Alphabet International d'Ethnologie), eta Alfabeto Filologikoa, →Filologia erromanikoari buruzko lanetan oso erabilia.

Euskararen arabera egokitutako alfabeto bat erabiltzen du Euskaltzaindiak bere izkribuetan (ikus VII).

Soinuak, azkenekorik, eta orokorki mintzatuz, hizkuntzen soinuak, edo mintzaira konkretuenak, oso eskuarki taula fonetiko edo fonologi-


kotan aurkeztu ohi dira, deskribapena egitean baliatutako erizpide fonetikoaren arabera (ikus, hiztegi honetan: Alfabetoak).

### 1.—Akustikaren ikuspegia

Tresnabidezko Fonetikak —Europar gaindi gotorki sustraiturik— mintzairaren soinuen ikerketa akustikoa hasi du. Hori dela bide, soinuak objektiboki neurtu eta idurikatu ahal izanez, eta osatzen dituzten uhinetan, eta beren egiazko balioetan, atalkatuz, Hizkuntz Fonetikari oinarri objektiboa eman zaio: Espektrograma edo Sonogramazko →irudikapenen bitartez, «ikus» egin daitezke soinuok: sudur-dardararik izan ala ez izan; eta baiezkoan, beren akustika-balio objektiboak erakutsiz: →intensitatea, iraupena edo →kantitatea, baita →maiztasuna, tonua edo altuera ere. Edozein soinuri datxekion laugarren berezgarria, berriz, tinbrea alegia, ez da irudikagarria. Izan, oinarritzko uhin-intentsitate eta maiztasunaren balio elkartuen sintesia da, baita datxezkien armoniko edo sekundarioena ere. Honi guztiari esker, are hitzaren sintetizazioa ere lortua da (ik. 3 irudia).

Hizketan, bere oinarri-tinbre berezia eta guzti sortzen da ahotsa edo tonu laringala. Tonubakarra da orduan, eta nekez entzungarri. Baina, gloti gainteko barrunbeko edo erresonantzi gune delakoetatik igarotzean, maiztasun —eta intentsitate— mordo zabal batetan gertatzen da gotorturik; eta, hori dela bide, gero hitz artikulatuari datxezkion tinbreen nabaratasuna sortzen. Aho-bidearen ezaugarriek ematen dute erresonantzia edo indarketa horien aniztasuna; alde batetik, bere itxura, bere ebakidura eta bere teinkadura aldatuz —eta hein handi batez mihiaren higikortasunarengatik— eta, bestetik, kanpora aldeko irtengunearen ahoaren aldatetaren bitartez, ezpainen itxura zabaldua edo borobildua den arabera.

Bokalek bizpahiru →formante edo armoniko-alor dituzte berezgarritzat; baina laugarren formante bat izaten da, →sudurkaria, espektro-




3. Ird. Ahots-aparatuaren lau durundigile nagusiak: 1. laringea; 2. ahoa; 3. sudurtzuloak; 4. ezpain-barrunbea (Malmberg, 1970).

gramen behereko partean ikusgarri, eta hau, jakina, soinu sudurkarietan.


→Kontsonanteak, soinu laburrago eta araugabeak izaten dira, berorien soinu-energia barreiaturik egoten da, eta →formante berezirik ez dute. Likidoek formante nahasiak dituzte, ezabakorrak; bokalezkotasunaren kutsua badute eta.

Hitz batez, kontsonanteek ez dute irudikapen berezirik eta garbirik espektrogrametan; baizik eta halako tatxak edo orbanak, biziago edo motelago, ertz nabarmenikgabeak; edo-ta zuriak herskariei dagokienez. Zehazkiago mintzatuz, aldaketak kutsatu ohi dituzte ondoko bokal-formanteetan. Hein batez bederen, hortaz, zeharbidezko irudikapena dute, ezeztakorra. Berorien «consonans» izaeraren baieztapena da hori, jakina, «begibidez» oraingoan; alegia, bere buruz ebakigarri ez den soinuak izatea.

Oinarrizko artikulazio-erizpideok artikulazio-ardatz bikoitzetan taxutzen baldin badira:



ardatz bikoitz horrek baluke, bere irudi gisa, akustika-ardatz bikoitzetan, osoki egokituko ez litzaiokeen bere kidea:



Azkeneko berrogeita-hamarreko hamarkadan gainditu, eta ondoko hirurogeikoaren erdialdean baztertu, egin bide du Fonetika akustiko horrek, artikulaziozkoa. Baina gaur elkarren osatzaile agertzen zaizkigu biak.

### III. FONOLOGIA OROKORRA

Bokal edo kontsonante «berberak» →textuinguru berberetan, baina →hiztun desberdinek (edo hiztun berberak) emanik ere, desberdinak dira, izan. Hala ere, «berdin»tzat hartzen ditugu, dituzten desberdintasunak haintzakotzat hartzen ez ditugularik.

Gauza bat adierazten du horrek: alderdi fonetikoaren ñabarduraren azpian, unitate-sistema abstraktu bat datzala; eta unitate horiek, arau

batzuren arabera elkartzen direla. Hots, sistema horrek funtsatzen du hizkuntza bidezko →komunikazioa. Azterketa fonetikoaren ondoren, →sistema hori eta arau horiek argitzen saiatzen da Fonologia, adierazpenaren forma edo hizkuntzen bigarren artikulazioa.

Fonologiak, horrela —batzuk Fonetika funtzional deritzoten horrek— hizkuntzan betetzen dituzten →funtzio edo betekizunen ikuspuntutik aztertzen ditu alderdi fonikoak.

Lehenengo kasuan, soinu desberdinak izanik ere, beren arteko →trukaketak —textuinguru berean, jakina—, ez du →Komunikazioa aldatzen. Soinu horiek, horretara, unitate fonologiko berberaren →aldaera →asketzat hartu behar dira; eta →bereizle ez diren betekizunak bete ohi dituzte elkarrizketako partaideen ezaupidetan.

Bigarren kasuan, berriz, textuinguruak baldintzatzen dituen soinuak ditugu —edo-ta, oro har, alderdi fonikoak— eta, hori dela-ta, soinu horiek elkar ordezkatzeko ezin ibiltzea gertatzen da. Textuinguruzko aldaerak ditugu horiek, edo-ta konbinaziozkoak. Hizkuntzaren adierazpenari buruz, garrantzitsuago gertatzen dira horiek. Eta Troubetzkoy-k «laguntzaile fonologiko»tzat hartu zituen.

Bi soinuen arteko desberdintasuna, berriz —textuinguru berberetan emanik bestalde— bestelakoa izan daiteke: alegia, batetik bestera pasa, eta derrigor →mezuaren →edukina aldaturik gertatzea. Soinu horiek, orduan, bi unitate fonologiko, bi →fonema desberdin, itxuratzen edo mamitzen dituzte. Horra hor sistemaren inbariantek. Eta berezten dituzten ezaugarri fonetikoak, bereizletzat hartuko ditugu.

Lehenengo begiraldi batez, hizkuntza baten unitate, fonema edo inbarianteen multzoa eman behar liguke azterketa fonologikoak; baita textuinguruen arabera bere aldaerak edo gauzatze fonetiko zehatzik ohizkoenak ere.

Bigarren begiraldiaz, berriz, soinu horiek fonologi →sistema batetan taxutzeak beste gauza batzu eskaini behar lizkiguke: beren elkargarritasunezko arauak, hitz bat fonologiari gagozkiolarik, euskalduntzat edo ez euskalduntzat harrerazten duena, arrazoia zein-nahi den. Badira ere, mintzairak baliatu ez dituzten aukera fonologikoak, eta espezialistek «ez-ahots» bataiatuak...

Fonemak beren ezaugarri bereizleen arabera zertzen dira. Hots, ezaugarri horiek, mintzairaren bigarren artikulazioaren mailako osagaitzat hartzen dituzte batzuk; edo-ta, soinuaren Fonologiatzat. Fonemak, horretara, hitzaren Fonologiari dagozkion lehen atalak dira.

→Aurkakotasun-mota batzuren arabera egituratzen dira fonemak sistemaren barruan: →aldebikari/aldeanitz, →proportziozko/isolatu, →pribatibo/mailakako/ekipolente, konstante/neutralizagarri. Aldebikari, proportziozko eta pribatibo diren aurkakotasun bikoteek, →koerlazio bat osatzen dute. Koerlazioan zenbat eta fonema gehiago sartu, orduan eta egituratuago egongo da fonologi sistema.

Historian barrena, elementu segmental eta puntualen fonologia landu da gehienik. Prosodi alderdiak, berriz, mailakakoak direlako bate-tik, eta beti ere katean agertzen direlako bestetik, ez-bereizletzat hartu izan dira; eta betekizun mugarriztaile eta adierazkorrak aitortu izan zaizkie batipat; alegia, maila fonetiko ( $\alpha$ ) eta maila fonologiko ( $\beta$ ) dela-koen artekoak.

Berrogeigarren hamarkadatik aurrera, gutxi gora-behera bederen erizpide funtzional edo fonologikoak erabiltzen hasi ziren sistemakiro  $\rightarrow$ azentuak, tonuak eta  $\rightarrow$ lokuneak aztertzerakoan. Alegia, prosodi osagairik laburrenak hautatu ziren, edo-ta puntualenak: hauek egokiago agertzen bait ziren egon/ez-egon  $\rightarrow$ trukaketa-froga erabiltzeko. Hori dela eta, tonema, azentu bereizle edo  $\rightarrow$ prosodema orokorki, izendatzen hasi ziren prosodi alderdiak; alegia, funtzio bereizle edo aurkakotasuneko-a betetzen zuten alderdiak.

Oraino berrikiago,  $\rightarrow$ esakunearen edo perpausaren Fonologia sortu da; eta honek  $\rightarrow$ intonazioaren ingurunean balio bereizlea aztertu du; eta gaur metodologi eta teori interes handiko alor bihurtu da. Hitz batez, fonologiaren ikuspegia osagai luze edo suprasegmentalei ere ezar dakie-keela dirudi; eta hizkuntz adierazpenari, horretara, izari dimentsioaniz-tuna aitortzen zaiola:  $\rightarrow$ substantziaren mailan ez-ezik,  $\rightarrow$ formarenean ere.

#### IV. PROSODI AZTERKETA

Arestian erakutsi dugunez, oso berandu arte ez du prosodiaren alderdiak ikerketa funtzionala lortu, eta Fonematikaren edo alderdi segmentalen fonologiaren eranskin eta osagarria baizik ez da izan. Prosodikotzat, nolazpait esateko, funtsean ez zen hartzen segmentalaren alorrean sartzen ez zenaz besterik: intonazioa, alegia.

Gogoan har dezagun «tonu puntual» esaera. Beste batzu, berriz, luzaz jardun dira «lokune-fonema» hizpidetsuaren segmentatasunaz.

Azkenaldi honetan, prosodi fonologia sortu da Ingalaterran; eta honek alderdi fonologikoen iker-ilara atzekoz aurrera jarri duela dirudi. Honek osagai luzeak edo perpausaren  $\rightarrow$ prosodia aztertzen du aurrenik; eta gero da pasatzen  $\rightarrow$ sintagmaren prosodiara,  $\rightarrow$ silabarenera, are silaba-parteenara ere, eta abar. Argibide gisa, baina besterik gabe, silabaren prosodi gisa agertuko zaizkigu ezpaineztapena, sabaieztapena, eta abar; eta, horretara, fonema segmentalei kenduko zaizkie  $\rightarrow$ ezaugarri horiek. Ez da ezaugarri puntuala edo segmentala izango, beraz, gaineko prosodi mailan aztergarri ez dena baizik. Fonologia polisistematikoa dugu hau beraz —europarretatik baino bertago Harris eta Hockett-enetatik—, hots, molde hori,  $\rightarrow$ esalditik abiatu-rik, unitate gorena, mailaka jaisten da



alderdi foniko puntaletaraino →transkripzio fonetiko berri hauek, horretara, ez dira lerrozkoak, ez dira, hitz batez, fonologia klasikoaren plegukoak; maila desberdinak eta prosodi azpimultzoak erakusten dituzten diagramak baizik.

## V. FONOLOGIA BITARRA

→Praga-ko Eskolak fonemen maila halere erabat utzi gabe, puntu bati eutsi zion bereziki: fonemak, alegia «→ezaugarri bereizleko konplexuak» direla. Horrekin batera, aurkakotasun aldebidariak proportziozko eta pribatiboak zituen bereziki balioztatuak; hau da, elkaroinarri berbera izanik, berorien fonemetako batak, besteak ez duen →marka-ezaugarria bait zuen.

Horrekin batera, soinu kontsonantikoaren →irudikapenari datzekion zailtasuna jarria zuen agerian fonetika akustikoaren hazkunde harrigarriak; eta, batera, beste hau idaroki: kontsonanteen arteko artikulaziotuaren aurkakotasun aldebidariak aurkakotasun akustiko aldebidari bihurtzeko aukera, ez ote zegoen.

Bide horretatik, eta berrogei eta hamarreko hamarkadan barrena, R. Jakobson-ek —Moskuko eta Pragako partaide-ohiak— G. Fonte eta M. Halle-rekin, sistema fonetiko bitarra eraiki zuen. Hamabi ezaugarri akustikoz osatua, giza-mintzaireraren aurkitzen diren aurkakotasun fonologiko guztiak azaltzeko helburua hartu zuen gidari.

Geroago, delako sistema hori multzo desberdinetako mintzaireri ezarri ondoren, osatua izan da, hogeitaziferarainoko ezaugarri eta azpizezaugarri.

Zenbaiten formulabidea ere aldatu da. Gaur egun fonologi sistema →bitarra, birrantsolatu dute Halle-k eta →Chomsky-k; eta artikulaziotu alderdiak azpimarratu dituzte Fonetika akustikoaren eta entzumenezkoaren aurrerapenen arabera. Bere izari orokor eta bitarra dela bide, Jakobson-en Sistema onartu ohi da gaur egun, eta agian Fonologian gehienetan erabili ohi den sistema da.

Horrez gain, bere eragintza-maila eta bere zehaztasuna direla medio, Linguistikaren beste alorretan ere izan du bere eragina eredu bitarrak: →semantikan, esate baterako.

Halle-k eta Chomsky-k birmoldatu duten eredu, gaur Fonologia sortzailean erabilia —esana dugunez— nahiz artikulaziotu →ezaugarri osatua izan funtsean, ezaugarriok orokorrak eta bitarrak izaten dira.

Hitz batez, Fonologia bitarrak fonemen mailatik ezaugarrienera jaitsi du Fonologia zaharra; eta Mintzaira-jakintzak dituen alor guztietan nabaritu da eragin hori. Ez da ahantzi behar, bestalde, oinarritzat dauz-

kan deskribapen fonetikook tresnabidezko Fonetika berriak lortu dituen soinu-uhinen neurketa elektrakustikoen objektibitateak sustatzen dituenik.

## VI. FONOLOGIA SORTZAILEA (ikus III)

Hasierako urteetan →sintaxiaren azterketa izan zuen Linguistika Sortzaile berriak bere ikergai nagusitzat. Gero, ordea, gramatika transformatzaileen osagai fonologikoa oso landua izan da, Chomsky-ren eta Halle-ren lanen ondorioz batez ere:

The Sounds patterns of English (1968).

Linguistikaren osabide berri honen arabera, osagai interpretatzailea da Fonologia; eta jadanik transformaturik ageri diren amaierako katea sintagmatikoei ezartzen zaie, alegia, perpausen azaleko egiturei.

Katea abstraktu horiek egiazko perpaus bilakarazi behar ditu; fonetikaren alderditik ebakigarri, konkretu, erabateko; eta, adierazpenaren alderditik, gramatikazko.

Horretarako, Lexikon delakoan molde fonologiko abstraktu bana dute →morfema guztiek, zeinek bere ezaugarri bereizle bitarrak, alegia, dagozkien →matrizeetan. Horiek transkripzio klasiko eta fonologikoak (estrukturalistak, alegia) baino goragoko abstrakzio-maila dute; morfofonologiaren mailatik hurbilago, beraz. Fonologi →erregela multzo nabar batek orduan —ziklo ordenatutan barrena— textuinguru hauetan eta haietan morfemek har ditzaketen →subordinazio sintagmatikoak oso kontutan hartuz, morfema horien balio fonologiko eta fonetikoak biltzen ditu. Piskanaka bere zehazketa fonetikoak bilduz doa perpausa. Prosodi edo segmentuz gaindiko ezaugarriak Gramatikaren osagai fonologikoaren arabera zehazten dira, erregela fonetikoaren arabera.

Linguistika berri honen Fonologiak, esana dugunez, osagai sintaktikoak eta semantikoak ukitzen ez duten guztia biltzen du; hau da, Linguistika estrukturalistaren maila fonetiko eta prosodikoa, fonologikoa, eta maila morfologikoa ere bai. Ez da, izan, bestetik, sail autonomo bat; zeren-eta, erabilia izateko, informazio sintaktikoa behar bait du aurrenik eta osagaien zedarriketa bereziki; eta hau guztia perpausen azaleko egiturak ematen dio.

Osagai fonologikoak bi maila ditu nahitaez:

- bata →abstraktua da, azpikoa, fonologikoa, hasierakoa, derrigor bitarrak diren ezaugarritz osatua, transkripzio morfonemiko edo ortografikotik hurbil; nahiz ezaugarri-matrizetan emana;
- eta fonetiko beste, nahitaez bitarraz zertan izan ez duten ezaugarritz osatua, perpausaren azkeneko zehazketari dagokiona.

Maila fonematikorik ez dago; nahiz batzu tarteko mailatzat sartzearen aldekoak badira ere.

Hitz batez, Fonologia Sortzailea, bitarra, oraindik ere abstraktua den azaleko egituratik behera abiatzen da, eta bere soinuzko gauzatzera jaisten da; eta, horretarako →hiztunen →konpetentziaren alderdi fonikoa ezagutarazten saiatzen da. Eta hori linguistika plegu honek oinarritzat hartua duen explizitutasunaren bidetik; alegia, erregela formalen bitartez. Lerro sintagmatikoan ageri diren alderdi fonetikoaren eraginak birbalioztatu ditu.

Erregelak berak, eta ezartzeko ordena sinkronibidez finkatuak izan arren, badirudi, hein batez bederen, mintzairen →diakronia ere berorietan isladatzen dela; are →dialektoen mailako desberdintasunak ere.

Bultzatzaileetako batzuren iritzi, azkenekorik, Fonologia sortzaileak beste hau jarri du agerian: aldaketa fonetikoaren diskretutasuna; ez bait dira hazkorrak edo mailakakoak beren zabalkundean baizik.

## VII. EUSKARAREN FONETIKA ETA FONOLOGIA

### A) SARRERA


Beharbada Euskararen Fonetika (B) izan da Euskal Linguistikan landuenik dagoen adarra. Ia-ia bere osoan, ikuspegi artikulatzaile edo fisiologiko batetik aztertu izan da (ikus II), eta areago ikusmolde fonetiko ( $\alpha$ )-tik, fonologiko ( $\beta$ )-tik baino. Ikerketa horietatik gehienak, bestalde, partzialak dira, edo dialektoen araberrakoa.

Orain dela gutxi, lan orokor batzua agertu dira (euskalkien gainetikoak), eta ikuspegi fonologiko ( $\beta$ ) batetik eginak bestalde; oro har, Martinet-en europar teoria fonologiko eta klasikoari jarraituz.

Prosodi alderdiak (b) —→azentua eta intonazioa— salbuespen batzueginez gero, oso laburki arakatuak izan dira; nahiz zenbait ikerketa berriek euskal fonetikari buruzko hutsune hau bete badu ere. Gure ustez, teoria eta azterpide berriak euskal alorrean erabiliko balira —hauek esate baterako: fonologia bitarra (V), prosodi analisisia (IV), edo, berriagoa, fonologia sortzailea (VI)— bai horiek, bai euskal fonetikaren beste alderdi batzua, argi daitezke; sistematizatuz, gaurko euskararen →diasistema —fonologikoa eta prosodikoa— bilatzen lagunduz; eta honek, ondorioz, euskararen diakroniaz ere hedatuko luke argi berria. Ez dira aiantzi behar, azkenekorik, Espektrogramak eta Tresnabidezko Fonetikaren bide berriek, ekar lezaketen objektibitatea.

### B) BOKALAK ETA DIPTONGOAK


Euskararen bokal-sistema hau da (ik. 4. irudia):



4. Ird. Euskararen bokal-sistema.

/ü/ fonema —fonetikaren aldetik bere kide frantsesa baino zabalagoa— zubereraz aurkitzen da. Jatorriari dagokionez frantsesa agian, funtzio-etekin txikia du; eta zenbait aldiz beste euskalkien eskualdeetan ere entzun daitezke horren aldaerak /ü/.

Euskararen ohizko →diptongoak →beheranzkoak dira:  
 au, ai, eu, ei, oi (ik. 5. irudia).



5. Ird. Euskararen beheranzko diptongoak.  
 Irudian diptongo hauek osatzen dituzten bokalak gezi baten bidez lotzen dira elkarrekin (Txillardegui, 1980).

Mitxelenaren ustez, →bokalarteko kontsonante baten galerari darraizkio eskuarki —/h/a maiz— eta, askotan ere, bokal bakun bihurtzeko joera erakusten dute. Berorien artean, biga dira aldakorrenak: (eu) eta (ai).

• (eu), iraunkorra da bizkaieraz, baita mendebaldeko eskualdeetan ere. Nafarreraz, baxenafarreraz eta zubereraz, berriz, monoptongatu egiten da; edo-ta disimilatu egiten da: (au), are (eb-) ere.

Adibidez:

B	AN	BN	S
(e <u>u</u> ri)	(u <u>r</u> i)	(a <u>u</u> ri)	(e <u>b</u> i)
(e <u>u</u> s <u>k</u> era)	(u <u>s</u> kara)	(u <u>s</u> kara)	( <u>u</u> s <u>k</u> ara)

• (aj), lehengoa baino iraunkorragoa: baxenafarreraz eta nafarreraz monoportogatu egiten da: (i), «ni niz» «Jinkoa», eta abar...

Bai Mitxelenak bai Moutard-ek euskal diptongoen fonemabikotasuna idarokitzen dute.

Zenbait aldiz, →geminatuak gertatzen dira (V): lapurteraz eta zubereraz; eta beste zenbait eskualdetan, gehienetan, hitz enfatikoetan eta adierazkorretan; eta, hori dela bide, berorien balio fonologikoa ez da osoki onartzen.

Badira, era berean, (ṽ) delakoak, are (ṼṼ) delakoak ere; alegia, bokal eta diptongo sudurkarituak, zubereraz eta erronkarietaz batez ere. Badirudi azkeneko honetan balio fonologikoa ere bazutela, gaurko zubereraz ez da horren garbia.

→Determinatzailearen bokalezkotasuna batetik, eta izen-enbor bokalikoaren ugaritasuna bestetik, katean hain bokal ugari elkartzearen zergatikoa nagusietako bat izan daitezke.

Eskuarki →hiatusak uxatu egiten bide ditu euskarak; eta arazo hori, bi modutara konpontzen du gehienetan:

a) bizkaieraz eta gipuzkeraz batez ere, →erdikontsonante edo bide-nabarrezko kontsonante baten sorreraz;

b) baxenafarreraz eta nafarreraz batez ere, →goranzko diptongoz eta →enborraren azken bokalaren erdikontsonantekuntzaz.

«negua» = ne'guβa, B, G; negwε, AN, BN

«mendia» = men'diže, B, G; mendja, AN, BN

Bestetan, berriz, bokalaren elkarketak laburbilketak edo →disimilazioak ekar ditzake. Hortaz, B-k ezaugarri berezi hau izango luke: lexemaren -a + a (art) = ea; baita «ia» ere.

Esate baterako:

alaba = alabea, alabie (B)

Euskalkien artean tinbre→alternantziak gertatzen dira zenbait aldiz:

B = u                      e = i              (e: erkidea)

urten                      irten

ule                      ile

uri                      iri

baina: gitxi              gutxi, gutti

B = a                      e = e

baltz                      beltz

barri                      berri

oba                      obe

Zenbait aldiz, →sintagma-eraginak gertatzen dira bokalen artean. Esate baterako: -a itxi egiten da = (e), bokal itxiaren ondoan (i, u). Hau baxenabarreraz eta nafarreraz gertatzen da usu: «burue» burua-ren orde.

Zenbait →bokal-harmonia ere agertu ohi da:

(S) u — ü ü — ü (e.b. бүрдүңа)

(R) ú — i ú — u (e.b. eguzku)

Azentua daraman bokala nagusitzen da bi kasuotan.

→Banaketaren aldetik, lekugune guztietan gertatzen dira bokalak oro; azkenean, dena dela, (i, u) nagusitzen zaizkie (e, o) -ri (bertago honetan astur-leonesetik, gaztelanietatik baino).

Laburki, hortaz: bost tinbretako bokal-sistema bat, gehienetan ahokari eta labur; eta, berorien elkarketaz, →beheranzko diptongoak gertatzen dira.

Hiatusa arbuia egiten da, gorago esandako bideen bitartez; eta badaude, euskalkietan barrena, bokal-alternantzia batzu, baita, →ebakerraren aldetik, beste desberdintasun batzu ere. Zeren-eta euskarazko bokalak laxo samarrak bait dira, erdiguneraturik batzutan. Horra hor euskararen alorraren fonologia bokalikoa.

C) KONTSONANTEAK ETA AZENTUA

Euskararen kontsonante-sistema orokorra hau izango litzateke:

		<u>Ezp.</u>	<u>Hortz.</u>	<u>Alb.</u>	<u>Sab.</u>	<u>Bel.</u>	<u>Lar.</u>
Leh.	{ asp. gor. oz.	(ph) p b	(th) t d		(t̥)	(kh) k g	

Txistukariak

Afrik.	{ g. o.			ts	tś	tš (dž = đ)	
Iguz.	{ g. o.	f		s (z)	ś (ź)	š (ž)	x (h)
Sud.		m		n	ñ		
Ald.				l	ļ		
Dard				r/R			

Oharra: Parentesi arteko soinuak, eskualde berezitako soinuak izan daitezke, edo-ta taulako fonemen →aldaera fonetikoak.

### 1.—Ohar paradigmaticoak

Leherkari aspiratuak (ph, esate baterako), lapurteraz, baxenafarraz eta zubereraz baizik ez dira gertatzen, azkeneko honetan, aspiratu ozenak ere badaudelarik; eta, eskuarki, dagozkien gorren aldaerak besterik ez dira. Hau ez da zubereraz gertatzen; euskalki honetan funtzio-eteekin bat bide dute eta.

Aspiratu igurzari laringala (h), gutxitan erabiltzen da gaur lapurteraz; eta zubereraz da ugarienik gertatzen, bai hasierako lekugunean, bai bokalarlean baina inoiz ez bigarren silabatik at (→hitzaren hastapenetik hasita).

Erronkarieraz, baxenafarreraz, eta beste zenbait euskalkitan, *k* eman du; edo-ta *g*.

Adibidez: «agoa», «kaur», «keben», eta abar.

«j» grafiari, →ebakera desberdinak dagozkio:

afr. edo iguz. oz. sab.: d edo (y), B, L, AN

igurz. sab. oz., txist.: z, itsasaldean

igurz. bel. g.: x, Markinan eta Gipuzkoan

Hiru txistukari-ordena ditu euskarak: mingainurreko, hortzatzekeo, →albeolarra eta →sabaikaria eta hori bi sortetan: bai →afrikatuak, bai igurzariak, gorrak (zubereraz ebakera →ozenak ere gertatzen direlarik, nahiz balio fonologiko zalantzaokoaz). Elkarketazko salbuespen batzu gorabehera, euskalki guztietan dago bizirik hiru ordenen arteko fonologi balioa. (Bizkaieraz izan ezik).

Azkeneko honetan bi bihurtu dira hiru ordenok, honetara:

[ts], [tʰs] = /ts/ afrik. ming. aurr.

[s], [s̺] = /s̺/ frik. alb.

Bizkaieraz ez daude, era berean, ez /t̺/ eta ez /d̺/, biok ugari Ipar eta Ekialdeko euskalkietan.

Eskuarki, euskarak ez du kontsonante geminaturik nahiz, Moutard-en ustez, zenbait geminazio adierazkor gertatu.

Euskarak gaitzetsi egiten ditu leherkari-likido bikoteak; eta, hori dela bide, «cruce» edo «librum» maileguez, honetara, «gurutz» eta «liburu» emango dute; leherkariaren eta likidoaren artean, azentudun bokalaren tinbre bereko bokal bat sortuz.

Hala ere, zaraitzuerak eta erronkarierak, barne-bokal atonoen erortzea dela bide, kontsonante-elkarketa horiek onartzen dituzte:

«librü», «gra» (= gara). Textuinguru erromanikoaren eraginez, elkarketa-mota hori duten hitzak orokortu egin dira: «andrea».

## 2.—Ohar distribuzional batzu

Agian hauxe da euskal kontsonantetasunaren ezaugarriarik nabarmenena: norbaitek kontsonanteen errotazismo bataiatu duena. Hasierako lekugunetan leherkari ozenak eta igurzakariak nahiago ditu. Amaierakoetan, leherkari gorrak eta afrikatuak nahiago sonantez gain; dena dela, igurzakariak bazterrean utzi gabe. →Bokalarteko lekuguneak ez bestek, onartzen du aurkakotasun-joko guztia (ozentasunari eta afrikazioari dagokienez), baita dardarkari biak: bakuna eta anizkuna r/R.

Lekugune horretan, berriz, ahuldu egiten dira euskal leherkari ozenak; eta galdu ere egin daitezke, /-g-/ batez ere; eta dagozkien gorrak, bigundurik eta ozendurik ebakitzen dira zenbait euskalkitan. (Latinezko bokalarteko gorrek, mendebaldeko mintzaira erromanikoetan gertatu denaz bestaldera, beren hartan iraun dute euskaraz; salbuespenak, hain zuzen, biarnera eta aragoera direlarik).

Hala ere, eta mailegu bidez etorritako hitzetan, ez da harrigarria hasierako lekugunetan gorrik topatzea: pake, tenpora, pago, eta abar; are gor teinkoak beren ebakeran ere, edo-ta berorien aldaera hasperenduak: lapurteraz eta zubereraz, adibidez.

Gorren eta ozenen →neutralizazioa txistukarien ondoan gorren alde, eta sonanteen ondoan ozenen alde mintzairaren joera zaharra da; gaur, agian, gaztelaniaren eta frantsesaren eragin erromanikoa dela eta, ahulduta, zenbait eskualdetan ez bait da bitxia hau topatzea:

ésdu tenpora, eta abar.

Bokalarteko lekugunetan ere, ez bide da inoiz oso errentagarria ozentasunezko aurkakotasuna, eta honek euskara Mediterranioko latinurreko mintzairarekin lotzera eramaten du autoreren bat.

Beste neutralizazio nagusia hau da:

Igurzakari/afrikatuak; eta ondorio honetara eramaten du: leherkari gorren aurrean, igurzakaria da →artxifonema; eta sonanteen ondoan, berriz, artxifonema afrikatua gertatzen da.

Azkeneko kasu honetan, nafarreraz, gipuzkeraz eta bizkaieraz bereziki, ebakera igurzakariak aurkitzea ez da batere harrigarria.

Euskarak, hitz batez, afrikatuen erabilketa handia egiten du, likidoen ondoren ere elkar bait daitezke hitz-amaieran; eta honek, Moutard-en iritzi, berorien izari fonemabakarra erakusten du.

Bukatzeko, azkenik, hasierako lekugunean, →dardarkaririk gertatzen ez dela oharreraziko dugu, ez bada mailegu berri-berrietan; ezta /h/, ezta ezpainkariak, eta ez /x/ ere hitz-amaieran. Azkeneko fonema hau, gaztelaniaren eraginezkoa seguraski, Gipuzkoan gertatzen da batez ere, aditz pilo batetan batetik, eta zenbait izen berezitan bestetik:

/xaun/, /xende/, eta abar.



Laburtuz, hortaz, kontsonanteen sistema bokalarteko lekugunean mamitzen da osokienik. Gainerakoetan, neutralizazio garrantzitsuak gertatzen dira, baita oso bereziak diren elkarketazko murrizketak ere. Ohar-garria da, era berean, txistukarien garrantzia, fonema igurzkari ozenik eza, eta →bustiduren espezializazioa: ia beti helburu adirazkor eta enfatikotan erabilia.

### 3.—Prosodi ohar batzu

Idarokia dugu jadanik (VII) euskararen prosodia gaur gaurkoz oso gutxi landu dela. Aztertzaierik gehienek, zuberera salbu, euskal azentuaren ez-bereizleatasuna markatzen dute ahobatez (v. infra).

Intentsitate eta tonuaren balioak elkartzen ditu euskal azentuak, ez bide da oso «azkarra», eskuarki hitzaren bigarren silaban gertatzen bide da (kontaketa hori hasieratik at egiten delarik), eta areago bide da morfologikoa, perpausazkoa, hitzezkoa baino. Zenbait →atzizkik beragana erakartzen du azentua, hitzean «atzeratuz»; eta →hasperenketan /h/, azentuaren aurrean joana bide da.

Euskalkien mailan, aldiz, eta zubereraren alorrean, areago da tonikoa azentua, intentsitatezkoa baino. Areago: balio bereizle edo fonologikoa ere badu:

elíza ≠ elizá

Bokalen laburdura dela bide, bai erronkarieraz, bai zubererari dago-kion eskualde guztian, hitz →oxitono asko dago.

→Lafon-en ustez, zubererazko azentuak banandu egiten ditu hitzak, perpausaren erritmoa hausten; eta honetxek egiten du zailago euskalki honen ulerkuntza. Beste eskualde guztietako euskaldunek erreparatzen dute arazo hau; baina, euskal hizkuntza-alorreko muturrekoak direnez, bizkaitarrek eta gipuzkoarrek dituzte trabarik larrienak.

Zilegi bekigu, honetaz gero, ondoko hau idarokitzea: bai azentua, bai intonazioa, bai agian euskal →lokuneak, prosodiaren eta segmentuz gaindiko baranoan aztertu behar lirakeela; eta Europako fonologia klasikoaren ikuspegia baino zabalagoak diren beste azterpide berrien arabera.

Itz.: Txillardegi

## BIBLIOGRAFIA

### A) Lan orokorrak

- ALARCOS LLORACH, E.: *Fonología Española*, B.R.H., Gredos, Madrid, 1968<sup>4</sup>.  
CHOMSKY, N. eta HALLE, M.: *Principes de Phonologie générative*, Ed. Du Seuil, Paris, 1968.  
GARDE, P.: *L'accent*, P.U.F., S.U.P., 5. zki., Paris, 1968.  
GRAMMONT, M.: *Traité de Phonétique*, Ed. Delagrave, Paris, 1950<sup>4</sup>.  
JAKOBSON, R.: *Ensayos de lingüística general*, Arg. Seix Barral, Barcelona, 1975 (VI. eta VII. kapituluak batez ere).

- MALMBERG, B.: *La Fonética*, Cuadernos Eudeba, 107. zki. Buenos Aires, 1970<sup>4</sup>.  
 MARTINET, A.: *Economía de los cambios fonéticos* (Tratado de Fonología diacrónica). B.R.H., Gredos, Madrid, 1974.  
 TROUBETZKOY, N. S.: *Principes de Phonologie*, Klincksieck, Paris, 1970.

## B) Euskal fonetika eta fonologiaz

- GAVEL, H.: «Els. de Phonétique Basque», *R.I.E.V.*, XII, Gran Enciclopedia Vasca-ren berrargitalpena.  
 HOLMER, N.: *El idioma vasco hablado*, San Sebastián, 1964.  
 — «Apuntes Vizcaínos», *Anuario del Seminario de F.V.J. de Urquijo*, San Sebastián, 1968, II.  
 LAFON, R.: «La lengua Vasca», *Enciclopedia Lingüística Hispánica*, I, 67-97 orr., Madrid, 1960.  
 MICHELENA, L.: *Fonética Histórica Vasca* (Tesis doctoral). Diputación de Guipúzcoa. San Sebastián, 1961. (Baita 1979eko berrargitalpena).  
 MOUTARD, N.: «Etude Phonologique sur les Dialectes Basques»: *Fontes Linguae Vasconum*, 19, 20, 22 zki. Pamplona, 1975-1976.  
 ROTAECHE, K.: *Estudio estructural del Euskera de Ondárroa* (Tesis doctoral), L. Zugaza Editor, Durango, 1978.  
 TOVAR, A.: «La lengua Vasca», *B.A.P.*, San Sebastián, 1954.

## C) Aldizkariak

- Anuario del Seminario de Fil. Vasca D. J. de Urquijo*, San Sebastián, 1954.  
*Fontes Linguae Vasconum*, Institución Príncipe de Viana, Pamplona, 1969.  
 Bi aldizkari hauek aldioro argitaratzen dituzte beren lanak.